**BERBETAN** PEIO MENDIZABAL, "BATASUNA PROZESUA"-KO PARTAIDEA · **GEHIGARRIA** PEDRO EZKURRARI ELKARRIZKETA · **KULTURA** "KORRIKA-12" APIRILAREN 2AN AILEGATUKO DA ELGOIBARRERA

# BARREN

ASTEKARIA

GOIBARKO ASTEKARIA · 2001ko martxoaren 9a/VIII. urtea/354. zkia



ZUHAITZ EGUNA

## Gaztetxoak naturarekin harremanetan

"ZUHAITZ ONAK ITZAL ONA" (Esaera zaharra)

# Piztu zure
# emozioak

NORKAR-en espazio berriak menperatzeko, ohikoa atzera uzteko, jaioak gara.

Horregatik, MAZDA marka aurkezten dizugu.

Esklusiboaren aldeko dema sendoa, 1931tik, mundu osoan sormen teknologikoari esker ezagutzen den marka japoniarra.

Gainerakoek zirriborratu besterik egin ez dituzten ideiak garaile bihurtu dituen marka, hain zuzen ere, kalitatea zein originaltasuna oinarritzat dituena.

NORKAR-ek zirrara berriak sentiaraziko dizkizun auto-saila jartzen du zure eskura. Aurki ezazu.

MAZDA marka jartzen du zure eskura.

Aurki ezazu.




Mazda Premacy 1.8 16v. Touring

**Prezioa: 2.950.000 pzta.***

• 1312_, Gangioa cta Ibilgailucn matnkulanu icnia barnc.

## NORKAR

**Zure MAZDA Kontzesionario berria non aurkituko duzun:**

**IURRETA**
Mallabiena, 4
tel: 946 215 640
tel: 946 215 643

**ARRASATE**
Zigarrola, 1
tel: 943 712 002

**ELGOIBAR**
Olaso, 23
tel: 943 742 037

r i *Grupo* ***Nortekor***



## Martxoak 9

"Uztailaren 7an, San Fermin bezala ospatzen dugu martxoaren 8an, Emakumeen Eguna", entzun nion bati lehengoan. Ez nago ados, Atzoko egunean aukera berdintasunik ez daukagula gogoratu zen ekitaldi eta komunikabideetan, geure burua kuttunago izan dezagun [an egiten duten hainbat taldek egitarau politak osatu zituzten, tratu txarrak salatu ziren, etxeko langileentzako soldata erreibindikatu... Egun haten ez da ezer aldatzen, baina hainbat gauza ez ahazteko balio du.

XXI. mendeko lehen martxoaren 8an oraindik halakoetan gabiltza. Talibanen basakeria izuganiekin konparatzerik ez dago, baina Euskal Herrian bidegabekeria ugari bizi ditugu zintzilikariorik ez dugunok: hainbat tokitan sarrera galerazten zaigu, ezin dugu nahi dugun ospakizunetan parte hartu, (puntu horietan bakoitzak bere etxean bizi duena jar dezake, gizon edo andre izan).

Eurostal erakundeak egindako inkestaren emaitzak aurkeztu dituzte asteon (kasualitatea'?). Europako jaiotze tasa baxuena dugula dio ikerlanak. (Ez da harritzekoa, oraindik orain ama izateko erabakia hartzea zirkoan ekilibrista izatearekin konpara daiteke-eta). Urduri jarri dira agintariak, etorkizunean geure jubilazioak (?) ordaintzeko bertoko langileen falta izango delako. Laguntzak onartuko dituzte tasa hori goratzeko. Ez da nahikoa izango, zerbait gehiago aldatu beharko da.

Montse Arregi



## Zenbakiak

Zero (0), bat (1), bi (2), hiru (3), lau (4), bost (5), sei (6), zazpi (7), zortzi (8), hederatzi (9). Hamar (10) zenbaki, hamar (10) aidagai denera.(1+9)=(3+7); infinitu (00) aukera bestela. Zenbaki arruntak, zenbaki bakoitiak, zenbaki bikoitiak, zenbaki errealak, erromatar zenbakiak, zenbaki hamartarrak, zenbaki itTazionalak, zenbaki osoak,.............................

1. Zenbat urte dituzu? Nik, berrogeita bi (42)
2. Zenbat anai-arreba zarete? Lau (4)
3. Nork irabazi du gaurko partidua? Errealak, 6-0
4. Zenbat balio du ebakiak? 160 pzta=100+50+10
5. Zer nota lortu duzu azterketan? 4'5
6. Noiz ordainduko didazue soldata? Hilaren 30ean.
7. Zein ordutan ateratzen da autobusa? Arratseko 18.00etan
8. Zure telefono zenbakia mesedez? 943 00 11 22
9. Hotz egiten du? Zortzi (8) gradu
10. Non entzun dezaket Euskadi Gaztea? 92.4 an
11, Zenbat MB ditu zure web orriak? 50 MB
12. Batetik hamarrerako eskalan, eman ezazu eskainitako zerbitzuaren balorazioa? 6
13. Mortadela horretatik 250 gramo, mesedez.
14. Peter I.Tschaikowskyren 5. Sinfonia
15. U2
16, Praka bauek probatu nahi nituzke. Talla rnesedez? 40a
17. Zenbaki gorritan duzu kontua
18. Txanda eskatzeko zenbakia hartu behar da
19. Seiko urrea nerea da
20. Zenbal zenbaki

Egu;kiñe A.

motz motz
kALe inkesTa ........................................ 12
gehigarria ........................................ 13
kiROlAk ........................................ 20
aGenda ........................................ 24

## ITARROBIA? HARRO GAUDE!

Orain galdera berriak ditugu. Espainiatik Euskal Herrira etorritako 300 poliziak, hortzetaraino armatuak, 15 gazte eraman dituzte euren etxeetatik. Arma espainolen hotsa euskal gazteen aurka. Annak Euskal Herriaren aurka. Nor da kriminala? Nor da biolentoa? Nor da zapaltzailea? Nor da zapaIdua? Noren eskubideak dira urratuak, zanpatuak, apurtuak?

Guk Gazte Mugimendu berria sortzen ikusi zaituztegu, Euskal Herri batu eta aske baten alde lan egiten Euskal Herri luze zabalean. Guk lgor gizarte eredu berri bat eraikitzeko bidea asmatzen ikusi dugu. Mikel edo Garazi gaztetxeetan lanean. Arturo Irlandako Errepublikano gazteekin solasean aurkitu dugu han eta hemen. Patriekekin gazteentzat bizi baldintza duinak aldarrikatzeko manifestaldietan bat egin dugu. Guk Unai droga traftkoaren aurkako txostena idazten ikusi dugu. Arkaitz edo Aiora ikasleen eskubideak defendatzen. Ugaitz euskal kultura sustatzen eta Garikoitz unibertsitatean euskararen alde borrokan ikusi dugu.

Euskal Herriaren eraikuntza lanetan buru belarri ari garen honetan, znek erakutsi diguzue aski ongi bide horren jorraketa nolakoa izan behar den, pauso zehatzak emanez, 1ana egiteko eta borrokatzeko gogoa eta kemena erakutsiz, eta gure herri honen etorkizunaren klinua ondo landuz. Khnuari adarrak moztu nahi izan dizkiote. Baina gu ez ginen HAIKAko kide. Hamabost gazte eraman dituzte. Orain gu guztiok HAIKAko kide pra. Gaurtik aurrera askoz ere gehiago izango gara. Horra hor erasotzailearen lehen porrota. Zu ere atxikitu zaitez: tel 943 441 278

H.O.A.
NAN 15875421

## HAIKAKO KIDEENTZAT, BESARKADA BAT

Euskal Herriaren burujabetza eta askatasunaren alde lan egiteagatik Garzonek HAIKAko 15 gazte atxilotu zituen asteartean. Gaur, hiru egunez poliziaren eskuetan egon ondoren Audientzia Nazionaletik pasako dira (zergatik kolpatzen dit TORTURA hitzak burua? Zergatik? Zergatik min egin arte'?), Garzon, PPko eskuindar ultranazionalista espainolen babesarekin HBko Mahai Nazionala zartzelaratuz hasi zen eta haren zerrendan daude Pepe Rei, KAS, HBko Mahai Nazionala, EGIN, Jarrai, AEK, Xaki, Ekin, Joxemi Zumalabe fundazioko kideen gartzelaratzea....eta arazo politiko honi guztiari buelta eman arte etorriko direnak.

Euskal Herriaren Nazio izaera aldarrikatu eta defendatzen duen edonor gartzelaratzeko prest daude Garzon, PP, eta haien gehiegikeriak txukundu, garbitu, eta hedatuko dituzten irrati, telebista eta egunkariak. Honek guztiak Frankoren garai ilunenak gogorarazten dizkit. Eta oraingoan ere, muntaia politiko-polizial honen aurrean, nola ez, PNV eta EA isilik geldituko dira: "auzokoaren bila etorri ziren baina nik ez nuen ezer egin(...)".

Poliziaren eskuetan gorriak eta bi pasako zituzten HAIKAko kide guztiei besarkada handi bat bidali bahi diet hemendik. Baita gure herriaren defentsan diharduten gazte guztiei ere. Animo! Bidea luzea eta gogorra da, baina garaipena geurea da!!

L.P.
**NAN 15392640**

# Urruzunoren begi ezkutua



Behiak larrera ateratzen zituenero azaltzen zen zezena. Inork ez zekien nondik zetorren, ez nongoa zen, baina bere asmoak nabarmen nuden. Zirkuluetan mugitzen zen, astiro, behien inguruan, bat taldetik irten eta urreratzen zitzaion arte. Orduan, basoan ezkutatzen ziren. Biharamunean, zezena han agertzen zen, baina behia ez. Asaldaturik, maiorazkoa San Badolome parrokiara jaitsi zen aholku eske. Apaizak prakak, bedeinkatu zizkion baserritarrari, eta hauek zezenari adarretatik sartzeko agindu zion. Gizarajoak arratsalde osoa eman zuen zezenaren atzetik korrika, praka santuak eskuan, kolpe batera eta kolpe bestera, "ostia" orain eta "puta" gero, belarretan arrastaka eta kaka artean saltoka. Entzutekoak ziren inguruetako kuxkuxeroen algarak eta behien marruak. Iluntzerako ezinean ari ziren biak, eta amore eman zuen...zezenak. Burutu zen apaizaren profezia... eta maiorazkoa lurrean eserita geratu zen, ziplo. Zur eta lur. Aurrean alboko baserriko alarguna baitzeukan, larrugorritan!

**Ion Garate**
URRUZUNO LITERATUR TALDEA

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
. 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea.com
Helbide inforrnatikoa:
www,topagunea.comibarren
ARGITARATZAILEA
Elgobarko /zarra

ELGOIBAKKO IZARAA
[LICAIVI,1

LAaurrrzna Elgoibarko Udala Zuzenomux Eli Atzpuru KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea PueLIZTATEA AndOitZ Agirregomezkorta MAKETATZAILEA Bea Ans0a AnuensTnazox Arnaa Pockigez GERENTZIA Rafa PJvarez, M. Angeles Ort oste, KOLABORATZAJLEAK AME18 Lar1Z, Unai Argarate, Eguzkrhe Aranbern, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Anor Zabaleta, leire Urkick Olga Unzilla, Montse Arregi, Juando GoroslIza, Iker Maguregi, Jon Gurrutxaga, Jon Eugi, Ainhoa Anclonegi. Kokoe K.E. ela Urruzuno L.T. AZALEKD ESALDIA Gatzon Garateren Ilburulik INPRIMATEGIA Gerlu Koop. E. TIRADA 4.000 ale LEGE GORDAILLIA SS4.038192 ISSN 1139.1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Fortt Aldundiak diruz lagandutako aiddearia.*

rapalzo r7,

hDANOBAT

S'GOITI
GRUPO DAN06A7

2001-111-9

Egunero San Lorentzora pasiaran joaten den emakume talde batek honakoa esan digu: "San Lorentzoko kanpan komunak ipini zituzten baina urte hasieratik itxita daude. Erabaki hori penagarria iruditzen zaigu eta zergatia jakin nahi genuke".

Santa Klara kaleko 20 eta 22 zenbakiko bizilagunen izenean deitu digu emakume batek. Beraien etxe aurreko plazatxoa beti kotxez beteta egoten dela-eta honako galdera hau luzatu nahi du: "Zergatik ezin dugu eduki gure plazoleta jardinerekin eta kotxerik gabe. Jausoro plaza edo atzealdeko etxebizitzak bezala?".



## TXALOAK

"Charliren hiru aingeruen" partetik, zorionak Pakito, Xabi, Alberto eta Anttoni, atletismoan Gipuzkoako lehenak geratu zirelako. Euskadin ere irabaz dezazuela.


# Ciste Santua eta pazko Ostea

**COSTA BRAVA** zirkuitoa
Pentsio osoa (perlsonako) .................... 23.900 pta.

Li **ANDALUZIA** zirkuitoa
Pentsio erdia (pertsonako) .................... 33.900 pta.

**PETIT PARIS** zirkuitoa
Egonaldia eta gosaria (pertsorako) . . 32.900 pta.

;1 LONDRES
5 egun (pertsonako) .................... 77.900 pta.

**LLORET DE MAR**
**H.DON JUAN *****
Pentsio erdia (pertsonako) .................... 18.600 pta.

**SALOU**
**H. SALOU PACIFIC *****
Pentsio erdia (pertsonako) .................... 22.300 pta.

**EJLANDAK**
**GREEN PARK**
2/4 pax txaletak txaleteko .................... 33.800 pta.

**SKIA ALPEETAN** *(autobusa+egonafdia+forfaitak)*
**VAL THORENS** (pertsonako) .................... 41.300 pta.

• . **TENERIFE**
Egonaldia eta gosaria (pertsonako) . . . 67.600 pta.

•**MALLORCA** *(hegaldi zuzena Bilbotik)*
Egonaldia eta gosaria (pertsonako) . 59.000 pta.

VIAJtS BIDAIAK
**BILBRO EXPQESS**

**BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA**
**Foruen enparantza, 3 • Tel: 943 74 39 12**


Birak

HUV! FSATIA NIAZTU ZAIT. Zoi-UA GARE311 5EgglA PAGO.

li

lip

„--,

11)O

no II

W 1 i

# Zuhaitz Egunean 22 lizar landatu zituzten Basarte auzoan

## Lizarraren egurrak duen estimazioa azaldu zieten brigadako langileek gaztetxoei

Beste hainbat herritan bezalaxe, joan den larunbatean, martxoaren 3an, 22 lizar landatu zituzten Basarte kalean Zuhaitz Eguna zela-eta. Aurreko urteetan egin den bezala aurten ere zuhaitzak landatzen ikasi dute gaztetxoek. Eguraldia triste esnatu zelako edo eskola kiroletako partiduak zeudelako, baina bost ume baino ez ziren azaldu. Hala ere, brigadako langileen laguntzaz guztira 22 zuhaitz landatu zituzten.

Lizarra oso zuhaitz sendoa da eta altueran 40m hartzera heldu daiteke, eta badira kasuak 21 lagunen artean enborra inguratu ezin daitekeena ere. Lizarraren egurra erreminta kirtenak egiteko, gurdigintzarako eta torneriarako oso estimatua dela azaldu zieten gaztetxoei Udaleko brigadako langileek. Sutarako eta ikatza egiteko erregai ona dela eta bere hostoak ganaduentzako janari ona direla ere esan zieten.

*Zuhaitzak landatzeko eta ondoren zaintzekojarraitu beharreko pausoak:*

**LANDAKETA**

*Lekua aukeratu*
*40 eta 60 zm. arteko zuloa egin (sustraiaren arabera)*
*Lancicrrea sartu*
*Sustraiak estaii*
*Ura bota, zuhaitza lur motara*
*111 ohitu cladin*

**ZAINKETA**

*Adarretatik ez zintzilikatu*
*:s Azalik ez kendu*
*1 Ostikadarikez emad*
*Sokarik ez lotu*
*Nbizeon behin-bititon joan eta*
*ondadagoen ikust*

### Zuhaitzei bisita

Kimuak Diputazioak Urnietan duen Arizmendi landaretegitik ekarri zituzten. Aurten herri guztietarako 3000 kimu atera dituzte bertatik, eta horietatik 25 Elgoibarrerako. 22 Basarten landatu dituzte eta gainontzeko hiru arbolak beste lekuren batean.

Bost gaztetxo hauek aurreko urteetan ere landatu dituzte zuhaitzak herriko beste leku batzuetan, eta noizean behin bisitan joaten direla esan digute, hala ere, beraiek landatutako zuhaitz batzuk jadanik bota omen dituzte.

Brigadakoen argibideei jarraituz zuhaitzak landatu zituzten, eta ondoren beraien izenekin baita txartelak jarri ere. Bukatzeko patata frijituak eta freskagarri bana jaso zituzten beraien lanaren ordainetan.

# Parrokiako lokalak berritu dituzte elizako obren hirugarren fasean

## Katekesiko gelak, Parrokiako bulegoak eta ganbara daude bertan

Parrokiako berrikuntza lanak egiten hasi zirela badira urte batzuk. Izan ere, 1994tik hona teilatua, bobeda, kanpandorrea eta fatxada konpondu dituzte hainbat fasetan. Ondoren, hirugarren fasean, Parrokiako lokalen txanda iritsi da eta bukatzear direnean, Luis Bilbao obretako komisioko kideak eta Benantzio parrokoak lokal hauek erakutsi dizkigute.



*250 ume eta 40 gazte dabiltza katekesian eta sendotzarako prestatzen, 8 gelatan banaluta.*

### Katekesiko gelak

Gerra Zibilaren ostean egindako gela hauetan eman ziren Ikastolaren lehen pausoak, Luistarrak ere bildu izan dira bertan eta baita yogako ikastaroak eman ere, baina gehienok katekesiko gela moduan ezagutu ditugu eta egun ere funtzio hori betetzen dute. Guztira 250 ume joaten dira katekesira eta sendotzarako prestatzen 40 gazte ari dira. Bestalde, lehen solairuan Parrokiako bulegoa eta Caritasen lokala izango dira, besteak beste, eta bertatik garai bateko adorazio gelara sartu ahal izango da. Gela hau hitzaldiak emateko eta ekitaldi berezietarako erabiliko dute. Azken solairuan ganbara dago eta bertan Parrokiako materaiala gordeko dute. Hirugarren fase honek, 55 milioi pezetako aurrekontua izan du baina herritarrei kontuen berri zehatzagoa aurrerago jakinaraziko zaie. Urtarrilean hasi ziren haur eta gazteak katekesira lokal berrietara joaten eta hemendik aurrera modu erosoagoan prestatuko dituzte, besteak beste, jaunartzea eta sendotza.



## Euskaldunok Europari begira jarri behar dugula esan du Arnaldo Otegik

Joan den asteartean "Egungo egoera politikoa. Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko proposamena" izenburupean hitzaldia eskaini zuen Arnaldo Otegik, EHko bozeramaileak, Kultur Etxean. Hainbat gauzaren artean euskaldunok Europari begira jarri behar garela esan zuen. "Ezker Abertzaleak ikuspegi kritikoa izan du beti europar eraikuntzaren inguruan, baina badira 20 estatu inguru, azken urteetan autodeterminazioaren bidez estatu bihurtu direnak. Hauek 2004. urtean Europar Batasunean sartuko dira. Euskal Herriak, Europan estatu bezala sartzeko baldintza guztiak betetzen ditu. Beraz, autodeterminazio eskubidea Europan gauzatzea posible da". Hitzaldiaren ostean, galderak egiteko aukera izan zen eta ordu eta erdi pasa ondoren amaitu zen saioa.

## 1991 haino lehen lurperatutako gorpuak hilohltik aterako dituzte

1991ko martxoa baino lehen Olasoko hilerriko lurretan lurperatutako gorpuak hilobitik atera behar dituzte. Hori dela-eta Udaletik hainbat hobi identifikatu gabe daudela adierazi dute. Senitartekoak enterratuta dituztenek Udaleko Hirigintza Sailean eman behar dute horren berri, baldin eta gorpuzkinak gordetzea nahi badute. Identifikatutako familiei eskutitz bidez jakinaraziko zaie, baita aurrez gorputzak gordetzeko eskatu eta oraindik batu ez dituzten familiako kideei ere.

## BARREAlek interneteko helbide berria Izango du aurreranUean

Hemendik aurrera BARREN interneten ikusi nahi duzuenok, helbide berri bat erabili beharko duzue, **www.topagunea.comibarren,** hain zuzen ere. Kultur Elkarte eta Herri Aldizkarien Topaguneko web orrian BARREN bere osotasunean irakurtzeko aukera izango da .



## Hezkuntzako 25 ikuskarik autoehaluazloari buruzko ikastaroa egin dute IMHn

Joan den astelehenean amaitu zuten hezkuntzako 25 ikuskarik EFQM ereduan ebahlatzaile izateko ikastaroa. Elgoibarko Makina Erremintaren Institutuan autoebaluazioari buruzko ikastaroa egin dute. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatu du kurtsoa, Heziketako Euskal Planaren arabera sortutako kalitate agentziarekin Iotuta. Ebaluatzaile taldea EFQM ereduaren arabera prestatu dute.

## "Arima Beltza" musika talde elgoihartarra Musikaren Savietarako Uendatu dute

Espainiako Autoreen Elkarteak antolatuta Musikaren Sariak banatuko dituzte datorren martxoaren 22an Madrilen. Beste batzuen artean euskai kanturik onenari saria emango dute, eta Elgoibarko "Arima Beltza" taldearen izen bereko kanta izendatuta dago sari hori jasotzeko. "Joseba Tapia" eta "Bide Ertzean" taldea izango dituzte lehiakide. Datorren martxoaren 22an Madrilen izango dira "Arima Beltza"-ko kideak, eta Jon Gurrutxaga taldeko bateria eta kantariak esan digunez, "nominauta egotia nahikua premixo da guretzat". Iaz Fermin Muguruzak jaso zuen sari hau. Ea aurten elgoibartarrek zorte bera izaten duten.



# inforrr azioa

## INTERESEKO TELEFOIVOAK

**OSASUNA**
Anbulategia .... 943 03 26 10
Planning-a .943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak 94374 03 85
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
Gurutze Gorria . 943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea. 943 03 28 00
Odol Emaileak . 943 74 39 36

**GARRAIOAK**
Eusko Trenbideak 943 74 04 42
PESA (Eibar) 902 10 12 10
Taxi geltokia ... 943 74 08 98

**UDALA**
Euskara Zerbitzua. 943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua. 943 74 44 15
Kultura Zerbitzua. 943 74 21 58
Mendaroko Udala . 943 75 61 00
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
Udaletxea ......... 943 74 10 50
Udaltzaingoa 943 74 13 94

**BESTELAKOAK**
Elgoibarko Izarra .. 943 74 16 26
Kiroldegia......... 943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
Liburutegia... 943 74 35 25
Musika Eskola 943 74 21 45
Mintxeta ......... 943 74 43 15
Parrokia ........... 943 74 08 42
Postetxea ......... 943 74 15 47
Gaztetxea ......... 943 74 35 72

**ADINEKDEN ETXEAK**
San Lazaro Egoitza. 943 74 02 96
Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Eguneko Zentroa . . 943 74 45 65

**IKASTETXEAK**
Haur Eskola , . 943 74 21 41
HHI (EPA) . . 943 74 08 80
Herri Eskola 943 74 08 79
I.M.H. ............ 943 74 41 32
Institutua
Arreiturre ....... 943 74 80 19
Ezenarro (Meka).. 943 74 80 19
Ikastola ........... 943 74 44 41
Pilar Ikastetxea.. . 943 74 13 31

**KOMUNIKABIDEAK**
BARREN ........... 943 74 41 12
El Diario Vasco 943 74 40 73
El Correo Español. 943 74 10 82
Zazpiki irratia . 943 74 34 74
Egunkaria............. 943 30 02 28
Gara................. 943 31 69 99

## Eusko • - TRENAIC

DONOSTIA-BILBO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Donostiamwt; 5.47 06.47
Elgoibar 07.02 08.02
Eihar 07.13

BILEO-DONOSITA
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Bilbo 06:00
Eibar 06.13 07.13
Elgoihar 06.23 07.23

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donostiameat; 07.47 08.47 09.47 10.47 11.47 12.47
Elgoibar 09.02 10.02 11.02 12.02 13.02 14.02
Eibar 09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
DonastiaMIMA 13.47 14.47 15.47 16.47 17.47 18.47 19.47 20.47
Elgoibar 15.02 16.02 17.02 18.02 19.02 20.02 21.02 22.02
Eibar 15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13 22.13

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Bilbo 08:00 09:00 10.00 11.00 12.00 13.00
Eibar 08.13 09.13 10.13 11.13 12.13 13.13 14.13
Elgoibar 08.23 09.23 10.23 11.23 12.23 13.23 14.23
Bilbo 14.00 15.00 16.00 17.00 18.00 19.00 20.00
Eibar 15.13 16.13 17.13 18.13 19.13 20.13 21.13
Elgoibar 15.23 16.23 17.23 18.23 19.23 20.23 21.23

## EuskoTren AUTOBUSAK

MENDARO-ELGOIBAR
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Mendaro 06.30 07.20 ...
Elgoibar 06.40 07.30
*orduenliro, Mendaron 21.S0ean azkena

Larunbata, igandea eta jaiegunetan
Mendaro 07.50 09.10 9.50 11.10 11.50
Elgoibar 08.00 09.20 10.00 11.20 12.00
*orduoro, Mendaron 21.50ean azkena

ELGOIBAR-MENDARO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Elgobar 06.25 07,25 07.55 08.25
Mendaro 06.35 07.40 08.10 08.40
*orduerdiro, Elgoihanen 21.25ean azkena

Iarunbata, igandea eta jaiegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 09.25 10.25
Mendaro 07.40 08.35 09.40 10.35
*orduoro, Elgoibarren 21.25ean azkena

## PES, AUTOBUSAK

AZPEITIA-BILBO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Elgoibar 06.50 13.20 18.50
Eibar 07.00 13.30 19.00
Larunbatak lanegunak
Elgoibar 09.50 14.50 18.50
Eibar 10.00 15.00 19.00
Igande eta Jaiegunetan
Elgoibar 9.50 19.50
Eibar 10.00 20.00

BILBO-AZPEMA
Asteiebenetik ostiral lanegunetara
Bilbo 10.30 14.30 21.00
Eibar 11.20 15.15 21.45
Elgoihar 11.30 15.25 21.55
Larunbat lanegunak
Bilbo 9.30 14.30 21.00
Eibar 10.15 15.15 21.45
Elgoihar 10.25 15.25 21.55
Igande eta jaiegunetan
Bilbo 12.30 21.00
Eibar 13.15 21.45
Elgoihar 13.25 21.55

ONDARROA-BILBAO
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Elgoibar 07.45 08.45 14.45 17.45
Eihar 8.00 9.00 15.00 18.00
Larunbat lanegunak
Elgoibar 7.45 8.45 14,45 1715
Eihar 8.00 9.00 15.00 18 00
Igande eta jaiegunetan
Elgoibar 8.45 14.45 18.05 19.45
Eihar 9.00 15.00 18.15 20.00

BILBO-ONDARROA
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Bilbo 9.00 12.30 17.30 19.30
Eibar 9.45 13.15 18.15 20.15
Elgoibar 9.55 13.25 18.25 20.25
Lanutbat lanegunak
Bilbo 10.30 12.30 17.30 19.30
Eibar 11.15 13.15 18.15 20.15
Elgoibar 11.25 13.25 18.25 20.25
Igande eta jaiegunetan
Bilbo 10.30 17.30 19.30 22.00
Eibar 11.15 18.15 20.15 22.45
Elgoihar 11.25 18.25 20.25 22.55

DONOSTIA-ERMUA (Autopista)
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Donostia 7.00 9.30 12.30 13.30 14.30
Elgoibar 7.35 10.05 13.05 14.05 15.05
Eibar 7.50 10.20 13.20 14.20 15.20
Donostia 15.00 17.30 18.30 19.30 20.45
Elgoibar 15.35 18.05 19.05 20.05 21.20
Eibar 15.50 18.20 19.20 20.20 21.30
Larunbat lanegunak
Donostia 12,30 15.00 17.30 19.30 20.45
Elgoibar 13.05 15.35 18.05 20.05 21.20
Eihar 13.20 15.50 18.20 20.20 21.30
Igande eta jaiegunetan
Donostia 12.30 17.30 19.30 20.45
Elgoibar 13.05 18.05 20.05 21.20
Eibar 13.20 18.20 20.20 21.30

ERMUA-DONOSTIA (Autopista)
Astelehenetik ostiral lanegunetara
Eibar 7.00 7.30 8.00 8.50 10.30 13.30
Elgoibar 7.10 7.40 8.10 9.00 10.40 13.40
Eibar 14.30 15.30 18.30 20.30
Elgoibar 14.40 15.40 18.40 20.40
Larunbat lanegunak
Eihar 7.00 8.50 10.30 13.30 18.30
Elgoibar 7.10 9.00 10.40 13.40 18.40
Igande eta jaiegunetan
Eibar 9.30 13.30 15.30 18.30 20.30
Elgoihar 9.40 13.40 15.40 18.40 20.40



# NORBEREf o izean

Dentista

Umetan zer izan nahi zenuen?
Ez dakit. Baina medikuntza ikasi eta gero odontologiako bidetik jo nuen.
Zaita gertatu aI zitzaizun lanhidea ikastea?
Batez ere medikuntzako 6 urteko ikasketak. Orain karrera bat dago odontologia ikasteko, baina lehen aurrez medikuntza ikasi behar zen.
Zure lanerako asmakizunik onena?
Azken aldian inplanteen kontua dago modan, baina zirujiarena oso gai delikatua da. Enpasteetan ere aurrerakuntza asko egin da.
Inoiz ikusi duzun ahorik perfektoena?
Tom Cruisena. Haginak okertuta zeuzkan eta konponketa batzuk egin ostean atentzioa emateko moduko ahoa laga diote. Telebistako aurkezle amerikarren irriparrak ere oso deigarriak dira.
Lanean ezin duzu jasan...
Jendeak hortzak ez garbitzea.
Ofizio berekoen artean konpetentzia handia al dago?
Bai, gero eta handiagoa.
Nola ikusten duzu lanbidearen etorkizuna?
Jende nagusiak hortzak kontserbatzeko entzien tratamenduak egitera, inplanteetara... bideratuko dugu etorkizunean gure lana, beti ere inplante kontuan kasuak behar bezala baloratuz.
Jendeak estimatzen al du zuen Iana?
Ez dut uste, minez daudenean etortzen dira gugana, baina aurrez hortzak zaintzeari eta errebisioak egiteari ez diote garrantziarik ematen.
Zein pertsona famaturekin egingo zenuke lan gustura?
Jende arruntarekin lan eginda konformatzen naiz.
Gogoan al duzu lanean gertatutako anekdotarik?
Paziente bat urduri jarri zen eta lima bat irentsi zuen, berehala eritetxera bidali genuen eta susto hutsean geratu zen kontua.

# asteKo ERREZETA



## BAKAILAOA PIL¯PIL ERARA

**OSAGAIAK**
Lau pertsonentzat
Gezatutako bakailaoa laminetan 800 gr.
Oliba olioa, litro erdia
6 berakatz ale

**PRESTAKETA**
Bakailaoa 24 ordu lehenagotik gezatzen ipini eta hiru aldiz aldatu behar zaio ura. Berakatzak oliotan egosten ipiniko ditugu baina ez dira frijitzen laga behar. Bakailao pusketak bertara bota, azala gaineko aIdera dutelarik. Egosten laga behar dugu su motelean baina hauek ere frijitzen utzi gabe. Buelta eman eta berriro ere egosi arte itxaron behar dugu. Ondoren, olioa eta berakatzak beste ontzi batera kendu eta bakailaoa denbora pitin batean atsedenean eduki behar da. Piskanaka ura botatzen joango da bakailaoa eta ur hori kendu behar dugu ontzitik. Ur guztia kendu ondoren, aurretik banatu ditugun olioa eta baratxuriak nahastu eta kontuz-kontuz kazuela mugitu, biak bat egin dezaten eta nahi dugun haina saltsa lortu arte.

TX4t.ttidttfrtit
jatetxen

Ermuaranbide 1 Tel. 943 74 04 90


ARAMBURU
BITXIDENDA
*Aurreko urteetan bezala, aurten ere eskaintza berezia aurkituko duzue belarritako eta eraztunetan.*
*EZ GALDU AUKERA HAU!*
San Frantzisko, 26 Tel.: 943 74 25 35

OINETAKO KONPONKETA
MERINO


Errosario, 11 behea
ELGOIBAR
Tel. 656 728 112

# nola ALDATU diren gauzak!

2001-111-9

**1975** urte ingurukoa da argazki hau. "Klinika" bezala ezaguna zen hen̄ian etxe hau. Antonio Affillaga sendagileak eduki zuen urte askoan. Ospetsua izan zen sendagile hau Elgoibarren eta berari eskainitako kalea ere badago gaur egun. Etxearen zati honetan sukaldea zegoen.





**2001** urtearako, begira nola aldatu den lekua. duela 25 urte inguru, bota zuten klinika, atzeko etxeak eraiki baino urte eta erdi lehenago, gutxi gora-behera. Egun, erretratuan ikus daitekeen bezala, etxebizitzak, dendak eta beste hainbat lokal eta garaje aurki ditzakegu leku berean.

*Juanito Gorostiza*

igazte informazio gunea Varixoaren 8an zabaldu da

Lanpostuak, bekak, ikastaroak, auzolandegiak, turisnma, aterpetseak, Kultur ekintzak...

i gazte informazioa

Eskaera desberdinetara egokitzeko prest gaude!

Lanegunak:
Ostegunetan eta ostiraletan
17:00etatik 20:00etara

Larunhatetan 9:00etatik
13:00etara

15-30 unke bitarteko
gazteei zazenduta

Kultur etxeko 2. solairua • Na1arroa plaza, 3 • Tel. 943 741 461 E-maila: eig.gzerhitzua@terra.es





## LIveppoolen pasa dituzte bi aste Ikastolako 18 ikaslek

Ikastolako 16 ikasle Liverpooleko Litherlanden izan dira otsailaren 14tik 28ra bitartean. Ingelesa praktikatzeko helburuarekin bertako familietan egon dira eta hango ohiturak ikasi eta lekurik esanguratsuenak bisitatu dituzte. Hemen geratu ziren ikasleek, berriz, Ordiziako Oiangurenen pasa dituzte 5 egun ingelesa ikasten. Berriz errepikatuko luketen esperientzia bat dela esan digute. Hegazkinean ere hainbat abentura izan zituzten. Elkartrukea eginez ikasle ingelesak datorren martxoaren 12an etorriko dira Elgoibarrera.

## Ikastolako ikasleak Kutxa-espazio zientzia museoan izan ziren

Ikastolako DBH 1 eta 2ko ikasleak naturaren inguruko jakinmina asetze aldera-edo Donostiam Miramongo Kutxa-espazio zientzia museoan izan ziren. Fisika, natura eta beste hainbat arlotako edukiak era praktikoan lantzeko aukera izan zuten bertan. Egun polita igarotzeaz gain, gauza berriak ikasi zituzten eta gustuko irteera izan zela esan digute.





## Frantziako Pipinioetan eskiatzen izan dira Ikastolako DBH 2koak

Eskia modako kirola bihurtzen ari dela dirudi, ikusi besterik ez dago azken aldian zenbatek egiten duen asteburuan elurretara eskapadatxoa. Ikastolako DBH 2ko ikasleak hainbat gurasorekin Frantziako Pirineoetako Luz Ardideneko eski estazioan izan ziren otsailaren 3an. Goizean goiz atera eta egun osoan elurretan gora eta behera ibili ostean, ipurdiko bat edo beste hartuta itzuli ziren etxera. HaIa ere, egun pasa ederra izan zela aitortu digute.

### Udaltzaingoa gogor hasi da trafiko arauak hete arazten

# UDALTZAINEK IPINITAKO MULTAK ORDAINTZEN AL DITUZU?



## RUBEN URRIZA

**33 urte, irakaslea**

Bai, baina oso gutxi ipini dizkidate, bost urtetan bi multa ez da asko. Azkenaldi honetan multa gehiago jartzen dituzte, baina azkenean, ordaintzeko garaian, ez da diru asko eta azkar ahazten zaigu,

## LUIS ARTETXE

**45 urte, rektifikadorea**

Beharko ordaindu! Hala ere, herrian 25 urtetan ez didate bat bera ere ipini. San Frantzisko aldean, adibidez, gero eta bigilantzia gehiago dago, baina askok eta askok udaltzainak ez dituzte aintzakotzat hartzen.





## PEDRO M.ARANBARRI

**62 urte, aurrejubilatua**

Ez dizkidate ipintzen, normalian garajian aparkatzen dot, Konturau naiz gero eta multa gehixao jartzen dabela. Ordena pixkat bihar da, baina batzutan abusau eitxen dabe.

## BIRJINIA URRUZOLA

**35 urte, garbitzailea**

Bai. Ez dut udaltzainak gogorrago daudenik nabaritu. Jendeak lekurik ez dagoelako aparkatzen du gaizki eta multa gehiago ipini beharrean, aparkalekuak ipini behar lituzkete.





## JAIONE ESNAOLA

**31 urte, saltzailea**

Normalean bai, baina ez dizkidate asko ipini. Egia esan, ez dut nabaritu multa gehiago ipini dutenik. Lekurik ez badago, non edo non aparkatu beharra dago,

## BEATRIZ PEÑA

**35 urte, etxekoandrea**

Ipini izan didatenean esplikazio eske joan izan naiz udaltzaingora. Askotan presaka ibiltzen gara eta aparkaleku gutxi daudenez, denbora gehiago edukitzen laga behar lukete. Aspaldian orduak ondo errespetatzen dituzte.





*I. URTEURRENA*

*2000ko martxoaren lln, 78 urte zituela hil zen DANIEL GOMEZ CANTEROren oroimenez URTEURRENEKO MEZA. izango da Parrokian larunbatean, hilaren 17an, arratsalcieko 19:00etan. Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.*



BARRen
ASTEKARIA

HILEKO ELKARRIZKETA · 2001k



# elkarrizketa

MASAJE KONTUA HAIN MODAKO DAGOEN GARAIAN, HERRIKO MASAJISTA BETERANO BATENGANA JO DUGU, PEDRO EZKURRARENGANA, HAIN ZUZEN ERE. HAINBAT HERRITAR EZEZIK PILOTARI EZAGUNAK ERE PASATU DIRA PEDROREN ESKUETATIK. ARRASATETIK TX0FER LANETARA ETORRI ETA ELGOIBARREN JENDEAREN MINAK ARINTZEN AMAITU ZUEN GIZON HONEKIN IZAN GARA BERBETAN ETA BERE IBILERAK KONTATU DIZKIGU.

## Pedro Ezkurra

" OSASUNANTZAT EZ DAO ASTIAN BEHIN SAUNA ETA MASAJE SESIO BAT HARTZIA BAINO HOBERIK"

# Pedro Ezkurra

## "Osasunantzat ez dao astiar

ARRASATEN JA10 ZEN PEDRO EZKURRA 1922AN ETA MENDE ERDIA BETETZEAR ZELA ETORRI ZEN ELGOIBARRERA LANERA. LANGILE PORROKATUA IZAN DA PEDRO, TXOFER LANETAN ARITUA, SIGMAKO TAILERREKO LANGILEA ETA MASAJISTA. EZKURRA MASAJISTA MODUAN EZAGUTZEN DU BATIK BAT JENDEAK ELGOIBARREN. IZAN ERE, GURE-BIDE ELKARTEKO TXIRRINDULARIEKIN MASAJISTA MODUAN HASI ZEN ETA 65 URTEREKIN ERRETIRATU ZEN ARTE HORRETAN ARITU DA. TXIRRINDULARITZAN AFIZIONATUA ETA MASAJEA OFIZIO IZAN DITUEN GIZON HONEN BIZITZARI BURUZ ZERBAIT GEHL4GOJAKITEKO, HITZ GUTXITAN LABURTU DITUGU BERAK ESANDAKOAK.



Arrasatekoa zara jaiotzez.

Bai holaxe da, baina txikitxako akorduak txarrak dia. Gerran bi frentien erdixan tokau ginan eta ezin genduan ez alde batera ez bestera urten. Anaiak gerrara jun eta hiru anai-arreba bakarrik gerau ginan etxian. Bueltan etorri zianian Santanderrera alde ein genduan. Etxera etorritxa ezer gabe topau ginan.

I Gaztetan mekaniko hasi eta txofer lanetara pasatu zinen gero, ezta?

Soldautzatik etorri nintzanian, mekanika asuntuan hasi nintzan, hori gustatzen jatan-eta. Garaje batian lagun bat nakan eta handik Durangoko enpresa batera bialdu ninduen. Gero hasi nintzan txofer lanetan.

I Nolatan etorri zinen Elgoibarrera?

Durangon txofertzan ibili nintzan Moreno Autobusekin, Durangotik Gasteizera biajiak eitxen nitxuan. Han amistadia ein naban txofer batekin eta harek esan zian Elgoibarren kamioi berri bat ekarri zabela eta nahi banaban aukeria emango ziela, eta holaxe ailegau nintzan Elgoibarrera. Enpresetan txatarria batu eta beste lekuetara eruatia zan nere lana.

Sigmako lantegian ere aritutakoa zara.

Transportista moduan lana eitxeko aukeria eman zien Sigman, baina kamioia ailegau bitxartian Estartak taladruakin lanian hasteko esan zian. Orduan ikusi naban tailarrian lan eitxen kamioiakin baino diru gehixao ateratzen nabala eta karreteran urte askuan ibilitxakua nintzanez, tailarrian geratzia erabaki naban.

I Lantegiko lanean gogor aritu arren, jendeak masajista moduan ezagutzen zaitu. Lesio bat medio hasi zinen Ianbide horretan?

Lanian pisuzko kaja bat hartzera jun eta apurtu ein zan, orduan atzeko makinia bizkarrakin jo eta ixa hiru urte ein nitxuan bajiakin. Inguruko mediko danak pasau eta azkenian Madrilen operau ninduen, baina ez nintzan ondo geratu, eta bukatutzat eman nitxuan nere ibilerak. Orduan, zesta puntan Ameriketan zauan pelotari lagun bati "El hombre riis perfecto del mundo" liburua bialtzeko eskatu nion. Haura irakurritxa gimnasia eitxen hasi nintzan egunero. Gero Gurutze Gorriko zuzendarixakin amistadia ein naban, eta hari galdetu nion ia han masajista izateko ikasteko posibilidaderik nakan.

# behin sauna eta masaje sesio bat hanzia baino hoberik"

**Gurutze Gorrian ikasi zenuen, beraz, masajista izateko behar zenuena.**

Medikuak masaje asuntuan ez zaudela ondo orientauta masaje asuntuan. Hiru hilabete ein nitxuan Donostian eta diploma eman zien, orduan ez zauan titulorik. Gero, Frantziara ere ein nitxuan biajiak osteopatia ikasteko. Kasu grabiak bazian, Frantziara bialtzen nitxuan pazientiak eta ni eurekin juten nintzan gorputza zela mobitxu bihar naban ikustera.

**Jende ezagunari eman dizkiozu masajeak, ezta?**

"Gure-Bide"-ko lehenengo ziklista taldia urten zanian, ni masajista moduan juten nintzan eurekin. Urtain ere etortzen zan neregana. Boxeuan hasi baino lehenao harrijasotzen ibiltzen zan eta sekulako gorputza zakan. Gero dirudun jendiakin hasi zan eta beste espezialista batzuengana jun arren ez zauan konforme haren masajiekin eta neregana etortzen segidu zaban. Pelotarixak ere, zesta puntan ibiltzen zianak, ixa danak pasau zian nere eskuetatik.

**Beraz, kirolariei masajeak ematea izan da zure espezialitatea.**

Ez, danerako masajiak eman ditxut nik. Deportisteri ezezik bizkarreko lesiva zakeneri, erreuma arazuekin zabizeneri ere eman izan diuet. Nik beti esan dot osasuntsu egoteko ez dauala neurri hoberik astian sauna eta masaje sesio bat hartzia baino.



"GURE-BIDEKO LEHENENGO ZIKLISTA TALDIA URTEN ZANIAN, NI MASAJISTA MODUAN JUTEN NINTZAN EUREEN"

"GAIIIR EGUN EZ NAO MASAJIAK EMATEKO MODUAN BAINA NOIZIAN BEHIN, ESKATUZ GERO, LEPOKO MASAJEREN BAT EDO BESTE EMATEN DIOT LAGUNEN BATI"



**Noiz erretiratu zinen?**

65 urtekin laga nion, baina etxian euki dot jarraipenik. Neri laguntzen hasi zan semia eta oin Madrilen dabil lanian. Berakin hemen ibili zan Ondarruko neska batek ere oindiok segitzen dau. Oin nik gerrixa minduta dakat eta noizian behin lepoko masajeren bat edo beste ematen diot lagunen bati eskatuz gero, baina oso gutxitan.

Nik neure gorputzari ematen diot masajia, eta gainera egunero gimnasia eitxen dot, laga ezkero bestela gure sasoian akabo.

**Hainbeste urtetan kontu bitxirik izango duzu gogoan?**

Behin Eibarko pelotari bati fibrak hautsi jakozen eta medikuak **20** egunian ohian egon eta pasauko jakola esan zion. Pelotarixa neregana etorri eta egunero masajiak ematen sendau naban. Medikuak ez zaban sinisten zela zan posible masajiekin konpontzia.

**Eta bitxikeriekin hasita, zuk eta lagunek asmatutakoa omen da orain urtero egiten den Karakaterako igoera, ezta?**

San Anton egun baten kuadrilako lau lagunek beste lauren kontra afari bat jokatu genduan, minutu bategatxik guk galdu genduan. Guk urte baten ein eta nahikua izan zan.

# atzera begira

## pausoz pauso



-1922an jaio zen Arrasaten. Soldadu joan artean herrian bertan egin zituen ikasketak, eta ondoren hiru urteko soldadutza egin zuen.

- Sei hilabetez Durangon lanean aritu ostean, 24 urterekin Elgoibarrera etorri zen. Txofer lanetan ibili zen lehenengo eta Sigmako lantegian ondoren.

- Gure Bide Elkarteko kide izanik, bertako txirrindularien masajista moduan ere lan egindakoa da, eta autoan atzetik segika ibiltzen zireneko garaiak oraindik gogoan ditu Pedrok.

- Masajista moduan 35 urte zituela hasi zen, eta 65 urterekin erretiratu artean horretan aritu da. Bere eskuetatik pasatutakoak dira herriko txirrindulariak, garai bateko puntistak eta baita Urtain boxeolaria ere.

- Erretiroa hartutakoan ortuan ibili zen, bateko lorak zirela, besteko tomateak... hori omen du gustuko. Baina denborarekin, gerriko mina dela-eta utzi egin behar izan dio horri ere.

# **besteen** ahotan



oadrilako laguna du Juanito Gorostizak Pedro Ezkurra. Arrasatetik Elgoibarrera anera etorri zenetik ezagutzen omen du, eta berari buruz lagun moduan hitz eta kontu politak baino ez dizkigu esan. Juanitoren hitzetan, "jatorra, alaixa eta salaua da Pedro. Txiste eta brometarako lagun ezin hobia, lagun artekua, hitz baten esateko". Alaia ezezik lanerako beti prest dagoen horietctkoa ere badela esan digu, berdin arotz lanetan, elektrizitate kontuan... Baina Pedro aritu omen do beste langintzaren bcttean ere, eta berak aitortu ez badigu ere Juanito lagunak agerian jarri du bere sekretua. "Kuadrilako lagunen eguna zelebratzen genduanian soinua jotzen zabon eta sekulako girua ipini ere bai".

Bitxikeriaren bat kontatzeko ere eskatu diogu Juanitori eta honako hau esan digu: "Pedrok ikaragarri ile ederra zaukan gaztetan, ondulaua eta atentziva emateka modukua baina gero jausi ein jakon. Behin, ilia luzdzeko produkto bat saltzen etorri jakon gizon bat baina tratamenduak ez zion ezer egin. Produktu bera lagun pelukero bati eruan zion saltzailiak eta honek berriz, ordubete pasau zala Pedro ikusi zabanetik eta han ilia hasi ez bajakon berak ere ez zabala produkturik erosiko esan zion."

**Ba RREN**

# GOZAnij hijUtKARIK BERRIENA

U | ta witytt -e eskutik

zar

, ® , y.

**Egin zaltez EGUNKARIAren *harpidedun** eta aukeratu METAK disketxearen lan berrietatik** gustukoena.**

-afflor



## disketxearen ekolipenak

**BASQUE ELECTRONIC DIASPORA #2 (CD)**
Musika elektronikoa munduan barretiat urtik daud en euskaldunek egtina.

**SAGARROI (CD)**
tInigo Muguruzaren rock-hardcore egitasmo berria.

**LIF (CD)**
Punk-rock, hardcorea eta metal nahasketa.

**ETSAIAK (VHS)**
Azken urteetako hatinbat bideoklip eta bi ren irudiekin osaturiko btidedana.



## HARPIDETZAREN ABANTAILAK

- 8000 pta.gatik hilean goizeko 013:00ak aurretik jasoko duzu EGUNKARIA etxean.
- Promozioetan abantailak
- Harpidedunaren txokoa: sarrerak, diskoak, afariak, egonaldiak... **doard**

### Bete eta bidai ezazu harpidedun txartela

Izen Abizenak ____________________

NA __________ Helbidea ____________________

P,K. __________ Herria __________ Lanbidea __________

Herrialdea __________ Tel __________ laiotze data __________

Kontu zenbakia ☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐☐

Sinadura

Egunkaria

EGUNKARIA
Mart,rr 1,15alde Kultur Parkea
20140 ANDDA1N
Tet: 943 300 222 / 902 30E1 Z23
hamIdetzaCegunkarka.com

Harpidedun izan nahi dut

* Otsailaren 23tik martxoaren 16ra

** Maiatzetik aurrera kalean.

2001-111-9



Hamatka gauza ikusi eta irakurri ahal izan dugu azkenaldt honetan Batasuna Eztabaida Prozesuaren protektuaren inguruan. Ezbairik *gabe,* politika aiorrean zeresan handia eman duen gaia dugu hau, eta ziur aurrerantzean ere emango duela. Hala ere, bada oraindik proiektu honi buruz deus ere ez dakienik, beraz, zalaniza horiek argiizeko asmoz, Peio Mendizabal ekarri dugu gure artera.

PEIO MENDIZABAL

# "Batasuna Eztabaida Prozesuaren orain arteko ba orazioa oso positiboa da"

- zer da Batasuna Prozesua?

"Batasuna" ezker abertzaletik sortu da. Gaurko momentu politikoan egokitu beharra ikusi genuen, eta Euskal Herria eraikitzeko prozesu honetan eztabaida zabal eta sakona eskaini nahi genuen. Ikuspegi nazionala bultzatzen duen proiektu politikoa da "Batasuna".

- Zein da proiektu honen helburu nagusia?

Hitz gutxitan esanda, herritar batasun nazional bat sortzea da gure helburu nagusia. Gehien azpimarratu duguna, ezaugarri nazionala izan da. Gure asmo eta nahia, Euskal Herri osoan erakunde bakarra sortzea da. Gaur egun, Iparraldean Abertzaleen Batasuna daukagu, eta Hego Euskal Herrian, EH. Gure helburua denok bat osatzea da, hau da, ezker abertzaletasunaren inguruan mugitzen garen guztiok elkarlanean aritzea, proiektu anitz eta zabal baten barne.

- Zertan datza eztabaida hau?

Eztabaida zabala eta irekia izatea da gure nahia. Hortaz, aurrez finkatutako gidoi bat jarraituz, talde bakoitzak bere txostena egin eta azaltzeko aukera izan du. Eztabaidarako bi gai nagusi zeuden: bata, eraiki nahi genuen herritarren batasuna; eta ildo politikoa, bestea. Talde bakoitzak goitizen bat jarri zion bere txostenari, eta bertan azaldutako ideiak guztion artean eztabaidatu genituen. Jakina den bezala, gai batzuk eztabaida sakonagoak sortu dituzte, baina orokorrean, oso interesgarria izan da.

- Zein izan dira arazo handienak sortu dituzten gaiak?

Zalantzarik gabe borroka armatua izan da eztabaidarako gairik gogorrena. Bestalde, instituzio desberdinekiko harremana, hau da, beraietan parte hartu edo ez, militantzia gainontzeko alderdi politikoekiko jarrera eta su etenaren inguruko balorazioak. Kontuan izan behar da eztabaida sakona eskatzen duten gaiak direla, eta zentzu zabal batean eztabaidatzen diren lehenengo aldia dela. Dudarik gabe, ez da erraza.

- Zein dira proiektu honetako partaideak?

Gure asmoa ahalik eta proiektu zabalena izatea da. Ezkertiarrak eta abertzaleak sentitzen diren guztiek hartu dezakete parte proiektu honetan. Argi eta garbi utzi nahi dugu ez dagoela EHko jendea bakarrik, talde independente ugari dago "Batasuna" proiektuaren barne. Guk ez dizkiogu ateak inori itxi. Publiko osoari luzatzen diogu deia, baina ideologia politikoa kontuan izanik, jende asko ez da proiektu honekin identifikatuko. Subiranotasuna eta lurraldetasun eskubidea onartzea ezinbesteko ezaugarriak dira, esate bateterako.

- Nola erantzun du jendeak Elgoibarren?

Guztira bost bitera izan ditugu: lehenengoa metodologiari buruzkoa izan zen, bigarren bileran txostenen aurkezpena egin genuen eta azkenengo hirurak eztabaidarako bilerak izan dira. Esan beharra dago, apurka-apurka partaidetza gutxitu egin dela, baina orokorrean oso gustura gaude. Bi gauza izan behar ditugu kontuan: alde batetik, emaitza kuantitatiboa eta bestetik, kualitatiboa. Bi aspektuak oso garrantzitsuak dira. Kuantitatiboki partaidetza gutxitu egin bada ere, kuafitatiboki honek guztiak zer suposatzen duen aztertu behar dugu. "Batasuna" proiektua duela urtebete inguru sortu zen eta orain arteko balorazioa oso positiboa izan da.

Ainhoa Andonegi

# Apirilaren 2an, astelehenean, pasatuko da Korrika Elgoibartik

## 1 2. edizioa da aurtengoa eta Nafarroako eta Iparraldeko euskaltegiak bultzatzeko bilduko da dirua

Korrika 12 martxoaren 29an hasiko da Gasteizen eta aionan amaituko da apirilaren 8an, 2.340 km. egin ondoren. Euskararen aldeko martxa apirilaren 2an iritsiko da Elgoibarrera baina aurretik "Korrika kulturala"-ren barruan, hainbat ekitaldi prestatu ditu AEK euskaltegiak Udalaren laguntzarekin. Horrela, zine emanldiak, antzerkiak eta pailazoen saioak ere antolatu dituzte. "Korrika kulturala" lasterketa heldu baino hilabete lehenagotik herri desberdinetan prestatzen diren ekintza kulturaletan oinarritzen da.

### "Mundu bat euskarara bildu" lemapean

Euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeaz gain, ahaleginik handiena Nafarroako eta Iparraldeko euskaltegiak bultzatzeko egingo da aurtengoan. "Mundu bat euskarara bildu" lemapean, globalizazioa hain bizirik dagoen mundu honetan, kultura hakoitzari bere lekua ematea aldarrikatzen da. Izan ere, martxoaren 1eko aurkezpenean Izaskun Belategi, AEKko arduradunak esan zuenaren arabera, "Unescok egindako ikerketaren ondoren, egun 6.000 hizkuntzatik gora badaude ere, mendearen amaieran 500ek besterik ez dute iraungo". Kultura gutxituen aldeko apostua da, beraz, Korrikaren egiteko nagusia.




**KORRIKA KULTURALA**
**EGITARAUA**

**MARTXOAK 18,** igandea.
*Tanpiro Txtkia".* Herriko Antzokian.

**MARTXOAK 28,** asteazkena.
*"Ogia eta Arrosak"* zine emanaldia. Herriko Antzokian.

**MARTXOAK 30,** ostirala.
22:15. *"Numidia"folk* taldea. Herriko Antzokian.

**APIRILAK 2,** astelehena. KORRIKA EGUNA.
17:00etatik- 18:00ra *Zirko tipia"* kale antzerkia.

### Bertsozale Elkarteari omenaktia

Euskal Herriko Bertsozale Elkartea omenduko dute Korrikaren edizio berrian. Bertsozaleak kanpaina osoan zehar omenduko dira, baina ekitaldi nagusia martxoaren l0ean, bihar, izango da Donostiako Kursaal Aretoan. Joateko asmoa izanez gero eta oraindik sarrerarik ez baduzue, gaur bertan deitu dezakezue Plaza Txikiko AEK euskaltegira.

Bestalde, Korrika Egunean norbait lasterkariak euren lekuetara kotxean eramateko eta ekartzeko prest balego, ipini dadila AEK euskaltegikoekin harremanetan.

# "Bestelako Zinea" egitasmoaren B. etapa jarriko du martxan Ongarri Zine Klubak martxoaren 15ean

## Apirilaren 26ra arte sei pelikula ikusi ahal izango dira Herriko Antzokian

*Ongarri Zine Klubak "Bestelcrko Zinea"-ren 6. etapa jarriko du martxan Ucialaren laguntzarekin hurrengo ostegunetik, hilaren 15efik, aurrera. Ostegunero eskainiko dira filmeak eta guztira sei pelikulo ikusi ahal izango dira apirilaren 26ra arte. Gaueko 9:30ean hasiko dira ohi bezala, Herriko Antzokian.*

Ongarri Zine Klubekoek, ohiko pelikulez gain, beste mota bateko filmeak eskaini nahi dizkiete ikusleei. "Bestelako Zinea"-ren 6. etapa honetan saritutako lanak eta gai desberdinak jorratzen dituzten filmeak izango dira. "Magnolia" filmea izango da zikloko lehena. Berlinen pelikula onenari emandako saria jaso zuen eta iazko "Oscar"-etarako ere bi ataletan izendatua izan zen. "Bailar en la oseuridad" lanak ere Cannes 2000ko "Palma de Oro" saria jaso zuen. Bizitzaren erreibindikazioa egiten duen "National 7" pelikulak ikuslegoaren errekonozimendua jaso zuen bai Berlinen eta baita Donostian ere. "Korrika Kulturaia"-ren ekitaldien barruan "Ogia eta Arrosak" eskainiko dute eta trhillena gustuko dutenek ere izango dute aukerarik "Memento" edo "Harry, un amigo que os quiere" filmeekin.

**ZINE KLUBAREN KARTELDEGIA**

| | |
|---|---|
| MARTXOAK 15, osteguna | Magnolia |
| MARTXOAK 22, osteguna | Bailar en la oscuridad |
| MARTXOAK 29, osteguna | Ogia eta arrosak |
| APIRILAK 5, osteguna | National 7 |
| APIRILAK19, osteguna | Memento |
| APIRILAK 26, osteguna | Harry, un amigo que os quiere |

# "oindiokan atentziva deitzen dau emakume bat bizikletan ikustiak"



GOTZONE AIERDI

TXIRRINDULARIA

- Adina: 28 urte.
- Tourra, Giroa ala Vuelta?
  Tourra.
- Gusinko txirrindulari bat?
  Mikel Zarrabeitia.
  Beste zaletasunik?
Mendira joatea.
  Lana ala aldapak?
Erdibideko bat, ez bata eta ez bestia.

• Noiz hasi zinen txirrindularitzan?

Txikitatik ibili naiz bizikletan, baina serixuao 14 urtetik aurrera hasi nintzan. Elgoibarko Lagun Taldiakin ere ibili nintzan lasterketetan, baina1anian hasi nintzanez, laga ein naban. Oin nere kabuz ibiltzen naiz astixa dakatenian. Laneko buru nekazivak kentzeko eta deskonektatzeko primerako kirola da.

a Dena den, Nahaste Borrasten parte hartzen jarraitzen duzu, ezta?

Bai, herriko ohitxura politx bat da. 8 urte inguruan parte hartu izan dot eta antolatzen jarraitzen daben bitxartian hola segitzia espero dot.

a Orain ala lehen ikusten dira emakume gehiago errepidean?

Igual oin afizio gehixao dao eta neskak ere sarrixao ikusten dia errepidian, baina oindiokan atentziva deitzen dau. Elgoibarren adibidez, bakarretakua naiz.

• Gizonek nola erreakonatzen dute emakume bat bizikletan ikustean?

Egixa esan, kaskuakin eta betaurrekuekin zaila izaten da neska edo mutila dan antzematen. Gainontzian sekula ez dot arazorik euki emakumia izatiagatxik, alderantziz, gehixao animau izan naute.

■ Bestalde, duela gutxi Euskalteleko txirrindulariekin entrenatzeko aukera izan duzu, ezta?

Bai, Euskadi Gazteak hilero enkante modukuak eitxen ditxu. Oinguan 10 pertsonarentzat Euskalteleko txirrindulari profesionalekin entrenatzeko aukeria jarri zaben subastan. Neri tokau jatan eta Derio inguruan eurekin 16 kilometro ein genduzen. Oso jator portau zian gurekin, Gorka Arrizabalaga mallabiarrari esker adibidez, txirrindulari profesionalen mundua gertuaotik ezautzeko aukeria euki naban. AspaIditik nakan profesionalek nola entrenatzen zaben jakiteko gogua eta ilusio handixa ein zian.

E Txirrindularien segurtasuna pil-pilean dabilen gaia da. Zerbait egin al daiteke txirrindulariak babesteko?

Ez dakitx zer ein leiken, baina Otxoa anaixen akzidentia modukuak entzutian bildur gehixaokin urtetzen naiz. Gidari batzun errespeto faltagatxik ere izan laike. Bakaffik bazuaz adibidez, ondo ondotik pasatzen zaitxue. Prisaka eta estresauta bizi gera danok eta hori ere izan leike errespeto falta honen arrazoietako bat. Bestalde, talde afizionau asko atzetik kotxe batekin entrenatzen hasi dia, baina hori ere ez da urtenbidia. Gainera, azken istripuak ahaztian berriz Iehengora bueltauko dia.

E Inoiz izan al duzu sustorik?

Bai, behin Bergara inguntan kamioi bat ondo-ondotik pasau jatan eta kuneta zulora jausi nintzan. Kamioikua, beffiz, konturau ere ez zan ein. Hartu naban sustuakin hilabete ingururako bizikletan ibiltziari laga nion.

## ffi Iikloturisten irteera martxoaren 11nf domekan

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, martxoaren I1n, 9. zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 9:30ean, eta honakoa izango da egingo duten Elgoibar, Eibar, Ermua, Trabakua, Markina, MilIoi, Lekeitio, Ondarroa, Mutriku eta Elgoibar. Guztira 78 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

## ■ 1MH Elgoibar Eskubaloi Taldeak Euskadiko Junior Txapelketan hartuko du parte

IMH Elgoibar Eskubaloi Taldeak Arabakan talde gasteiztarraren aurka jokatuko du junior mailako Euskadiko Txapelketa. Maila honetan 1979. urtetik aurrera jaiotako jokalariek bakarrik har dezakete parte, hau da, 21 urte baino gutxiagokoek. Kanporaketako lehen partidua Gasteizen izango da gaur, hilak 9. Itzulera partidua, berriz, datorren ostiralean, hilaren 16an, jokatuko da Olaizaga kiroldegian. Ordua zehazteko dago oraindik. Irabaziz gero Espainiako iparreko sektorean jokatzeko sailkapena lortuko lukete.

# Herriko 13 emakumek egin zuten korrika 12. Lilathoian

## Antolatzaileek sari berezia eman zieten elgoibartarrei



*Pilar Arriolak, behean eskumatik hasita bigarrenak, senior mailako bigarren postuan amaita zuen 5 km.-ko lasterketan.*

Emakumearen Nazioarteko Eguna (martxoak 8) ospatzeko sortu zen Lilathoia duela 12 urte. Donostiako kaleetan zehar egiten den 5 kilometroko lasterketa herrikoia da, eta emakumeek bakarrik har dezakete parte. Aurten 400 emakume inguruk hartu zuten parte kirola, jaia eta erreibindaikazioa uztartzen dituen lasterketan. Tartean Elgoibartik joandako I 3 emakume izan ziren. Elgoibartarrok "Kilimanjaro-Elgoibar" talde gisa aurkeztu ziren eta sortu zuten giro onari esker sari berezi bat irabazi zuten. Bestalde, Pilar Arriola elgoibartarrak senior mailako bigarren postuan amaitu zuen 5 km.ko lasterketa.

# Elgoibarko bi taldek Eskolarteko Gipuzkoako Hros Txapelketako podiumera Igotzea lortu dute

Hernaniko rugby zelaiaren inguruetan jokatu zen pasa den domekan (martxoak 4) Eskolarteko Gipuzkoako Kros Txapelketa. Elgoibarko ikastetxeetako eta Mintxeta Egondo Atletismo taldeko hainbat atleta gaztek hartu zuten parte, eta b-aita bikain aritu ere. Antton Alberdi, Ibai Azkoitia, Xabier Mujika, Agirregomezkorta eta Alberto Fernandezek irabazi zuten martxoaren 1 1n, domekan, Ortuellan (Bizkaia) jokatuko den Euskadiko Txapelketan parte hartzeko sailkapena Iortu zuten. Alebin mutilen taldeak, berriz, hirugarren postuan amaitu zuen. Honako hauek osatu zuten taldea: Unai Cabo, Ion Belaustegui, Angel Lopez, Aitor Arrese, Lander Azpiazu, Adur Juaristi, Bingen Esturo, Arkaitz Azkoitia eta Iker Isasi. Bestalde, egun berean Mintxeta Egondo Atletismo Taldeko 4 kidek Zumaiako Kros Txapelketan hartu zuten parte. Alebin nesken mailan Maialen Salaberriak 3. postua lortu zuen, Olatz Gil-ek 5. postuan eta Nagore Cid-ek 7. postua. Santos Tenak, berriz, beteranoen mailan hartu zuen parte.

*San Bartolome Ikastolako taldeak adibidez, lehen postua eskuratu zuen infantil mutilen*

## EMAITZAK

**Futbola**

Elgoibar 6 – Kilimon 0 (1. Erreg.)
Elgoibar 1- Real Sociedad 9 (Oho. inf.)
Elgoibar 4- Real Union 2 (1. Kad.)
Anaitasuna 3 Haundi 2 (Prel.)
Mondragon 1 - Pedrusko 0 (1. Erreg.)
Kostkas 4- Elgoibar O (Oho. jub.)
Bergara 3 - Elgoibar 2 (Neskak)

**Eskubaloia**

Gaur Elg. 21 -Almen Jakion 21(Kad. mut.)
Tecnifuelie Elg. 17 - Const. Zizzo 17 (Senior mut.)
Tecnomeca Elg. 29 - Urdaneta 22 (Kad. mut.)
Pneumax Elg. 20 Urdaneta 19 (Jub. mut.)
Kukullaga 21 - Pagoaga Elg. 17 (Kad. nesk.)
Kukullaga. 17 – Unceta Elg. 16 (Jub. nesk.}
Urnieta 18 IMS Elg. 10 (Senior nesk.)
Escorapios 21 - IMH. Elg. 26 (Senior mut.)

**Esku pilota**

Udaberri Saria
Agirrebeñallriondo 15
GurrutxagalArrizabalaga 22 (Ilunpe)

Debarroko Txapelketa
Agirrebefia/lriondo 12
Txurruka/Rodriguez 22 (Soraluze)

Loiola/Ubera 10
Jauregi/Fernandez 22 (Soraluze)

**idarraga kafeak 4. saria**

HAUINDIko jokalari erregularrena 00/01

| JOKALARIA | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Zulaika | 34 |
| 2- Laskibar | 25 |
| 3- izagirre | 21 |
| 4- Lander | 20 |
| 5- Saiz | 19 |
| 6- Caro | 16 |
| 7- Alkorta | 13 |
| 8- Loren | 13 |
| 9- Gurrutxaga | 12 |
| 10- Joseba | 10 |
| 11- Mugika | 9 |
| 12- Portu | 7 |

## AGENDA

**Futbola,** Mintxetan

Larunbala, 10
12:30 Elgoibar- Vasconia (1. Kad.)
16:30 Haundi Urola (Prel.)
18:15 Pedrusko - Urola (1. erreg.)
Igandea, 11
16:00 Elgoibar - Bergara (Oho. jub.)

**Eskubaloia,** Kiroldegtan

Larunbala, 10
15:45 Pagoaga Elg. - Leizaran (kad. nesk.)
17:00 Unceta Elg. - Leizaran (Jub. nesk.)
18:30 [MS Elg. - Hernani (Senior nesk.)

**Areto futbola,** Kiroldegian

Igandea, 11
12:30 Elgoibar F.S - Gu Lagunak (Euskal Liga)
Eskualdeko areto futbola
10:00 Eusko Label - Culebrilla 2000
10:45 Art. del Buen juego Esteaua de Solares
11:30 Kon-8 Vasta Rezola

# merkatu txikia



## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 10 | Yudego | Yudego |
| 11 | Yudego | Yudego |
| 12 | Zabaleta | Zabaleta |
| 13 | Etxeberria (Erroserio kalean) | Etxeberria |
| 14 | Escala | Escala |
| 15 | Bidasolo | Bidasolo |
| 16 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |

**FARMAZIAK**

**ESCALA**, Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**,
Herriko enparantza 4, Garagarza
Tel 943 75 61 42

**ZABALETA**, Kalebarren, 9 Soraluze
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
11 igandea Zabaleta

## 114 Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Durangoko enpresa baterako tornuloria behar da.
**ERREF: 44798/4.**

' Bilboko kanpooldeko enpresa baterako infarmatika saUerako arduraduna behar da.
ERREF: 45740/3.

Aldi baterako lan kontrotazio empresa batek Mallabiarako "carretillero" bat behar du.
ERREF: 45815/3.

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola Kostako enpresa baterako **tornularia** behor du.
**ERREF: 46179/4.**

Debabarrenako enpresa baterako telefono mugikorren arlorako **kornertziala** behar da.
**ERREF: 46291 /3.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola Kostako enpresa baterako **langilea** behar du.
**46341/4.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola Kostako enpresa baterako **CNC tomularia** behar du.
**ERREF: 46351 /4.**

Aldi baterako lan kontratazio enpresa batek Urola Kostako lanpostu baterako **enkofratzailea behar du. ERREF: 46364/4.**

Donostiako enpresa baterako **komeriziala** behar da.
**ERREF: 46394/1.**

Urola Erdiko enpresa baterako **motoponpak egiteko langilea** behar da. **ERREF: 46399/4.**

Donostiako enpresa baterako **ingeniari agronomoa** behar da.
**ERREF: 46555/5.**

Eibarko enpresa baterako Durangon bizi den **banatzailea** behar da.
**ERREF: 46640/4.**

Elbarko enpresa baterako Elgolbarren bizi den **banatzailea** behar do. **ERREF: 46643/4.**

Debabarrenako enpresa baterako **banatzailea** behar da.
**ERREF: 46645/4.**

Abadifkko gasolindegi baterako **kontabilitateko arduraduna** behar da. Erref: 46672/2.

Debako enpresa baterako **mekanikako FP Ra duen pertsona** bat behar da. **ERREF: 46755/1.**

Debabarrenako enpresa baterako **Kalitakko zuzendaria** behar da.
**ERREF: 47071 /1.**

Urola Erdiko enpresa baterako **infornnatikaria** behar da.
ERREF: **47189/4.**

Debagoienako enpresa baterako **web orrien diseinatzailea** behar da.
**ERREF: 47346/1.**

Eskaintza hau interesgarria gerlalzen bazain eta lortu nahi izanez gero, gogoan hartu eskaintzaren erreferentzia. Hauk!ai moduan sartzea eska- tu nahi .•.uzu **901222901** telefonora deitu edo '1..angark Elgoibarren dituen zenlm iagunizaile hauetako batera deihr Elgoibarko Instilulua (Alerk Ourricastillo) **943 74 80 19** edo IMH (Ekaitz Mendizaba)) **943 74 41 32** telefonora,

## Salerosketak

♦ "Genuine Intel" ordenagailua saltzen dut. Intel Pentium MMX prozesorearekin, 200 Mhz,eta 2 Gb-eko memoria, HP Deskjei 670C inpresora (opzionalaj, Primax One Touch 5300 eskanerra (opzionala), 15" monitorea, bozgorailuak eta modem-a (56 Kb. etara) ere saltzen dira. Interesatuak deitu **943 74 20 74** telefonora.

• Masajeak emateko kamila eta pesak egiteko makina salgai.
tr **639 05 55 17.** Josu.

• Peugeot 205 GR salgai. 100.000 pta. BI-AH. zr 630 **29 40 69.**

* Autoa salgai. Opel Vectra 1.6. SS-AF. Egoera oso onean.
**943 74 33 73. Koldo.**

• **"Comanche"** markako karrodun denda saigai. Prezio onean.
.71. **943 74 21 88.**

♦ **"Balay"** markako ontzi garbigailua salgai. Estreinatu gabe dago. 45 zm.
sz **943 74 05 37.**

• Boogie bat saltzen da prezio onean.
n/ **943 74 25 71.** Gauez deitu.

♦ Caravana bal sallzen da (Knaus 3.30). .13. 607 39 86 13. than.

## Lana

**ESKAERA**

• Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko.
▪ **943 74 44 16.**

• Tailerrean km egiteko neska eskaintzen da. tr 943 74 **39 39.** Puri.

* 28 urteko neska eskaintzen do astelehenetik ostiralera, arratsaldetan, partalak edo bulegoak garbitzeko
zr **943 74 36 38.** Arrate.

fErnakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko.
**943 74 34 06.**

**ESKAINTZA**

Larunbatetan tabernan lan egiteko neska gazteo eta ibtura onekoa behar da. Esperientzia baloratuko da.
.zz 943 74 37 71.

*Emakumeo behar da etxeko lanak egiteko eta haurrak zaintzeko. 7:00etatik-18:30era arte.
ir **943 74 42 37.**

4t **CNC** fresadoran lan egiteko mutii gazte bat behar da. Arilan.
ff **943 74 84 07.**

*Talaeman basoak jasotzeko eta diskoak ipintzeko pertsona behar do.
sz 943 74 42 65

## Etxehizitzak

Pisua hartuko nuke alokairuan Deban uda inguruan. s 678 **25 71 70.**

♦ Perhona batek pisua edo estudioa behar du alokairuan.
**vir 943 74 34 04.**

## Bestelakoak

Bost argidun latoizko lanpara oparitzen da. zr 943 74 23 07. M^t Jesus.

tOngi zaindutako marrazketa rnahaia saltzen da. 70X100 zm,
**irr 943 74 40 48/ 943 74 07 06.**
(Gaueko 9etatik aurrera deitu).

• 75 watiotako **4** bozgorailu salben ditut, Bose 301, serie3.1r **943 74 37 71.**

• Urrezko pultsera galdu dut Merkatu Plaza eta San Roke bitartean, Aurkitu duena saritzeko prest nago.
tr **943 74 00 79.**

• Caritasen 90eko ohea behar dugu "mesilla"-rekin ahal boda.
**tr 943 74 15 09.**

Urrezko belarritakoa galdu dut Urasanditik Pilar Ikastetxera bitartean. Aurkitu baduzu, mesedez deitu **943 74 44 45** telefonora. Arrafe.

* Caritasek jaio berrientzako arropak behar ditu. **a. 943 74 15 09.**

## Partikularrak

* Fisika, kimika eta maternatibko klase partikularrak ematen ditut.
943 74 39 44. Bea.

• Kurtsoa aurrera doala eta atzean geklilzen ari zarela? Zatoz gugana eta laguntza eskainiko dizugu. Klase partikularrak 12 urtera arte. Eulali eta Bidatz.
**tr 943 74 TO 44/ 943 74 34 99.**

## lokalak

• Lokala clokatzen da Santa Ana kalean. 12 **943 74 12 83**

## Garajeak

• Garajea saltzen da Urasandin.
**le 620 85 67 68.** (7etatik- 10etara) .

• Garaje marraduna salgai San Roke auzoan, pista behean.
**a:r 659 38 64 03.** Nekane.



*Zorionak Ane Artola Arreitunancliari, hilaren 12an 5 urte beteko dituelako. Etxekoen partez ondo pasal



*Zorionak Juan Mari Mendizaboll, hilaren 13an uñeak beteko dituelako. Idatzi nahi badiozue hona hemen helbiden: Centro Penitenciario Madrid 3. Madulo 6. 28340 Valdemoro. Madrid.



Zorionak Andaniri, hilaren 6an 5 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki, arreba Mariaren pariez.



*Zorionak Andreari, hilaren 5ean 3 urte bete zituelako. Gurasoen, aiton-amonen eta osaba-izeben partez.



* Zorionak **Ion**, bihor, hilaren 10ean 3 urte befeko dituzulako. Muxu handi bat familiaren eta bereziki, Gorkaren parfez.



*Zorionak Izaskun Esnaolari, adelekenean, hilaren 12an, 12 urte beteko diluelako. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak Akizneri, hilaren 3on 8 urte bete zituelako. Ezin izan genuen pasa den astean zorion agurrik ipini baina oraingoan bai. Zorionak familiaren eta mutii baten partez.



Zorionak **Iker Agirregomezkortctri, martxoaren** 5ean hiru urte beteko dituelako. Familiaren eia Aitziren partez.



*Sorpresa guztiak amaitu zirela uste al zenuen? Zorionak **Txerra**, izan ginenon baina han egoferik izan ez genuenon partez,

*Zorionak **Aner Astigarragari**, hilaren 8an ***4*** urte bete zituelako. Muxu haundi haundi bat etxeko guztien partez.



*Zorionak **Haizea,** martxoaren 4an 5 urte bete zituelako. Muxu hnundi bat printzesita.



*Zorionak **Jose Pedro** eta Raqueli, martxoaren 6an ezkondu zireneko 2. urtebeletzea zelako. Familiaren eta bereziki, Nagoreren eta Janireren partez.

## Agurrak

* Zorionak **Agirre. Ia** konturatzen zaren zein egunetan bizi zaren. Eskerrik asko ekipoaren partez.

* Zorionak **Ametz,** asteartean, auskalo zein astefan urteak bete zenilueiako. Badakizu zein geran.

* Zorionak **Sandra,** hilaren 6an 13 urte bete zenituelako. Ze uste zenuen, ez ginela gogaratuko? Pilar Ikastexeko DBH lekoen eta bereziki, trune eta Lauraren partez.

• Kaixo guapeton1Badator 14 urte beletzeko eguna. Pozik egongo zara, ezta **Unai?** Zorionak eta bi muxu handi zure mailakoen partez.

• Aupa **Jon,** zer moduz? Zorionak zure mailakoen portez. Ondo pasa futbolari!

♦ Zorionak **Imanoit,** hilaren 4an urteak bete zituelako. Paul eta Kristinaren partez.



# PROGRAMAZIOA

www-

## MARTXOA



ARGAZKI ERAKUSKETA

eta M. Tere Arakistain



OLE0 ERAKUSKETA

1 ere 1 ra istain

TOLETXEI

Pedro Muguruza 8, behea Tel. 943 74 19 48

## 9 BARIXAKUA

17:30 ZINEA
"El Dinosaurio"

21:30 **HITZALDIA**
Gaia: Gaur egungo emakumeen kezkak
Hizlaria: Loredi Salegi (Giza Zerbitzuetako teknikaria)
Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

22:15 **ZINE KLUBA**
"A flor de piel"
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba

## 1 0 ZAPATUA

**14:30 HERRI BAZKARIA**
Herri Gain jatetxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

**19:30-22:15 ZINEA**
"El protegido "

21:30 "BARRIKOTEA" **SAGARDO JAIA**
Kimetz Elkartean
Antolatzailea: Gestorak

22:30 KONTZERTUA
Taldea: "Fundiziyue" talde azkoitiarra
Gaztetxean
Sarrera doan

## 11 DOMEKA

**10:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**
**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian

**16:30 ZINEA**
"Dinosaurio"

19:30-22:15 **ZINEA**
"E! protegido"

## 12 ASTELEHENA

22:15 **ZINEA**
"EI protegido"

## 14 EGUAZTENA

**15:00 HITZALDIA**
Gaia: Bakerako hezi
Hizlaria: Franzisko Etxebeste, Elizbarrutiko Idazkaritza sozialeko arduraduna
Parrokiako areto berrian (trenbide kalean)
Antolatzailea. Parrokiako katekesia

**19:00 HITZALDIA**
Gaia: seme-alabei beraien konfidantza eta adimena garatzen nola lagundu
Hizlaria: Rafael Cristobal, psikiatra
Kultur Etxean
Antolatzailea: Herri Eskolako Kalamua Gurasoen elkartea

**20:00 DIAPOSITIBA EMANALDIA**
Gaia: "Munduari buelta bizikletan"
Antonio Fito brasildarra
Gaztetxean

**20:00 INAUTERIETAKO ARGAZKI RALLYAREN SARI BANAKETA**
Toletxe tabernan

## 15 EGUENA

**21:30 ZINEA**
"Magnolia"

ZINE kluba



## "Magnolia"

**Zuzendaria: Paul Thomas Anderson.**
**Antzezleak: Jason Robards, Tona Cruise, Julianne More.**
lazko Oscar sarietan saririkao ez arren, Nazioarteko Kritika Elkartekoek urteko pelikula¯nena izan zela erabaki ZU rlinen ere urrezko hartza irabazi zuert. Amerikako nobela handielatitsua du filme honek. Bertan, elkarrekin zerikusirik ez duten hainbat pertsonaia eta istorio nahasten dira: haur prodigio bat, telebistako lehiaketa batetako aurkezlea, hil zorian dagoen pertsona bat... Goi mailako gidoiari esker pertsonar ta istorioak osotasunean zentzua hartuz joant_To dira.

# agenda

### Oharra

Pasa den asteko BARRENen, euskaltegiei buruzko gehigarriko "gaia" atalean, EGA, euskararen gaitasun agiria, titulua ateratzeko bi deialdi daudela ipini genuen: bata, irekia, martxoaren 10ean, eta bestea ofiziala, maiatzaren 19an. Zuzendu beharrean aurkitzen gara, bigarren deialdia ez da ofiziala, itxia baizik.

## KONTZERTUAK

Udal Musika Bandak kalejira eta kontzertua eskainiko ditu domekan, hilaren lln. Kalez kale goizeko 10:30ean irtengo dira. Kontzertua, berriz, 12:30ean hasiko da Herriko Antzokian. Jose Antonio Osorok zuzenduta honako pieza hauek joko dituzte: "Expo 70" (P. Yoder), "Italia" (S. Rydberg), "Kaiser Franz Joseph Marsch" (R. Allmend), "El Gall de Ripoll" (J. Ribas), "Suite Hehraica" (Gonzalez-Grau), "Zacatecas" (G. Codina), "Forward" (F. Doppler), "Ustima" (Malando).

## KIIROLAK

Zarta Arkulari Taldekoek Eibarren dute ondorengo zita. Domekan, hilaren 1ln, Ipurua kiroldegian arituko dira Eibarko Arkulari Tiraketa Txapelketan. Guztira 6 arkulari elgoibartar joango dira Eibarrera. Momentuz taldekako lehen postuan daude elgoibartarrak eta Eibarkoarekin bi jardunaldi bakarrik geratzen dira Arkulari Liga bukatzeko. Saioa goizeko 11:30ean hasiko da.

## BATZARRAK

Jubilatuen Biltokiak urteko batzarra egingo du martxoaren 14an, asteazkenean. Arratsaldeko 18:00etan hasita honako hau izango da aztertuko duten gai zerrenda: lehendakariaren agurra, 2000. urtean egin dituzten ekintzak, 2000. urteko sarrera-irteeren balantzea eta azkenik, eskari eta galderen txanda izango da.

## TXANGOAK

Baztanera irteera
Gizartekintza erakundearen laguntzarekin Baztanera txangoa antolatu du Jubilatuen Biltokiak. Martxoaren 28an, asteazkenean, irtengo dira udaletxe paretik 8:30eart. Prezioa 3.000 pta.koa da menua barne. Bestalde, Insersorako eskaerak Biltokian daude. Epea martxoaren 31n bukatuko da.

Baqueira Beretera txangoa
Morkaiko Mendizale Elkarteak Baqueira Beretera eskiatzera joateko irteera antolatu du martxoaren 16tik 18ra bitartean. Autobusa arratsaldeko 19:00etan irtengo da barixakuan Plaza Handitik. Informazio gehiago eta izena emateko Morkaiko Elkarteak Errosario kalean duen egoitzara joan edo 943 74 02 97 telefonora deitu.

# zin

KARTELDEGIA

**antzokia**

"Dittosaurio"
Barixakua: 17:30
Domeka: 16:30
"A Ftor de piel"
Barixakua: 22:15
"El Protegido"
Zapatua: 19:30-22:15
Domeka: 19:30-22:15
Astelehena: 22:15
"Magnolia"
Eguena: 21:30

"Memento"
Barixakua: 22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domeka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: *19:30-*2$^9$:15

, ±;3,-;

"Colega dnde esta" mi coche"
Barixakua: 19:30-22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domeka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: *19:30-*22:15

BERGARA, Novedades
1 Protegido
Zapatua: 17:00-19:30-22:30
Domeka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: *19:30-22:15
"La Espalda del Mundo"
Eguena: 20:00

"Limite Vertical"
Zapatua: 19:30-22:30
Domeka: 19:30-22:30
Astelehena:19:30-22:30
"Banpiro txikia"
Domeka: 16:30
*Ikuslearen eguna

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "El Protegide

Zuzendaria: M. Night Shyamalan.
Antzeleak: Bruce Willis, Samuel L. Jackson, Rottin Wright Penn.

M. Night Shyamalan, "El sexto sentido" filmearen zuzendari eta gidoilariak suspentsezko thriller originala dakarkigu oraingoan. Berriz ere Bruce Willis aktorea da protagonista nagusia. Willisek, tren istripu ikaragarri batean bizirik irten den pertsona bakarraren papera antzezten du, David Dunnena, hain zuzen ere. Samuel L. Jackson, berriz, Elijah Price misteriotsua.da. Elijah da David zergatik irten den bizirik dakien pertsona barra. WIP

# erretratu zaharra

2001-111-9






Aste honetako argazkia I 954an ateratakoa da eta Eugenio Alberdik laga digu. Begira zer nolako zaletasuna zeukan garai hartan jendeak toka jokuan aritzeko. "Bar Itziartarra" taberna aurrean jarri ziren argażkirako Gipuzkoako txapelketa jokatu ostean. Irabazlea, koparekin, Isidro Viñaras izan zen, egun Jubilatuen Etxean pelukero lanetan aritzen dena. Lehiaketa antolatu zuten direktibakoen artean agertzen da txapelduna, gehienak eibartarrak ziren, baina tartean elgoibartarren bat edo beste ere badago.



*ESKERTZA*

*2001eko otsailaren 14an, 78 urte zituela hil zen MARCELO AJUBITA UNZLIETAren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*





*ESKERTZA*

*2001eko otsailaren 25ean, 70 urte zituela hil zen ANTONIO ALBIZLI ALBIZUren sendtak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu tzana.*



# MARTXOAK l 9, SAN JOSE

.rna



**ARAMBURU**
bitxidenda



**AZKUE**
argazkiak

**ECENARRO**
mertzeria



**GABILONDO**
estankoa



**GARATE** estankoa



**GOROSTIZA**
paperdenda



**IKUS** optika




IOSU
bitxidenda





**IRIONDO**
kirolak

**JULIO BUENO**
ardoak

**UZURI** optika



.5aloauni Ramelatatua (13E2. allankulaziu zuga, earraloe. Nlaum Aaslatance ela 5 urteko Bennela knailletra mugarEkgabe). Penirrlaula eta Ralear uhartestanika belagarrla. PREVER PLANA (80,0120 pta) ez dapo berne. Llarrtak aukeran.

# ALDIBI AUTOAK, S.A.

OLASO KALEA, 23 - TEL. 943 74 20 37 - 20870 ELGOIBAR
ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



## NISSAN ALMERA BERRI, BERRI, BERRI, BERRI, BERRIA.
## ORAIN, 5 URTEKO GARANTIAREKIN, BETI BERRI-BERRI.

NISSAN 1711~——/W BERR1A. B1DEAN GOZATZEKO.
Mendeetan zehar, filosofo eta alkimistek gaztetasun betierekoaren elixirraren bila jardun dute etengabe. Nissanek Nissan Almera berriarekin aurkitu du. Daukan segurtasun aktibo eta pasiborako paketeak bere kategoriako ibilgailurik seguruenetakota bihurtzen dute. Baina, horretaz gainera, bere kategorian bost urteko garantia eskaintzen duen ibilgailu bakarra da. Inolako kilometraje muga barik, denbora horretan lehenengo egunean bezain berri egon dadin.
Nissan Almera berriak ez du urteen pisurik sentitzen.



11 1̄11. TEKO RANTIA IGARIK GABE

| .5 MOTORRA COMFORT 3 ate | 1,8 MOTORRA COMFORT 5 ate | 2.2 MOTORRA Di COMFORT 3 ate | 2.2 MOTORRA Di COMFORT 3 ate |
|---|---|---|---|
| 1.835.000pw | 2.360.000~ | 2«320.000Froo | 2 .365.000pu. |

[NISSAN»

EIDATUZ ETA EOZATLI